

Bioaniztasuna lanjerrean!

Urte hasieraz geroztik behin eta berriz mintzatu gira bioaniztasunaz natur-zientzietan Aycaguer jaunarekin. Lehenik estudiatu ditugu lizeo inguruan bizi diren xoriak. Ondotik joan gira Zumaiarat. Han ztertu ditugu arrainak eta Zumaiako "Flysch".

Sohütako lizeo ikasleak gira. Sohüta, Euskal Herriko herri ttipi bat da, Frantziako hegomendebaldean kokatua. Sohütatik Miarritzerat joateko, oren bat emaiten dugu autoz. Gure lizeoan lauhun ikasle badira, oihan baten bazterrean kokatua da, zuhaitz desberdin ainitzez inguratua: haritzak, pagoak, urrondoak eta izaiak.



➤ *Sohütako lizeoko sartzea*

Urtarrilean, hasi dugu «vigi nature» deitu proiektua. Ondorioz bi hilabetez, asteazken goiz guziz bederatzietan, begiratu ditugu xoriak bi behatokitatik: lehena lizeoko teilatuan eta bigarrena, liburutegi ondoan. Ikusi ahal izan ditugu buztanikarak, xoxoak, amilotxak, negu-xoriak, papogorriak eta buztangorriak. Proiektu honen helburua zen xorien izenen ikastea, xori ezberdinen ezagutzea, bakoitxaren berezitasunak eta ezaugarriak ezagutzuz, (kolorea, goratasuna...) eta ondoren emaitzak Pariseko museoan igortzea.



➤ *Negu-xori bat*

Otsailean, joan gira aste batendako Zarautzerat (Gipuzkoan). Zarautz, hiri bat da, Frantziako mugaren ondoan. Zarautzetik Donostiarat, berrogoi minuta behar dira autoz. Asteazkenean, Zumaiarat joan ginen "Flysch"-en estudiatzeko. "Flysch"ak itsas ezpondak dira. Zumaia biziki ezaguna da bere bioniztasun aberatsarentzat bai eta flysch-ei esker. Flyschetan, higadurek arraidurak eragiten dituzte.

Orokorki flischek badute bioaniztasun aberats bat: algak edota itsasoko landaretza sortzen baita Flyschetan. Mareek eragin putzuak molusku, arrain eta krustazeoen "bizileku bikakutzen dira, arroak xorien babesleku eta habia bilakutzen direlarik.



➤ *Zumaiako flyschak*

Ostegunean, joan gira Donostiako akuarimerat arrainen ikusteko. Han arrain mota ainitz ikusi dugu. Donostiako akuarimeko arrain berezieta marrazo zezena da.

Akuariumean ere ikusi ahal izan dugu bioaniztasun biziki inportantea; eko-sistema ezberdinetako, ur geza ala ur gazietako espezieak, kolore ezberdinetako arrainak.. Haatik ohargarria da, egun oraino arrain batzuk mehatxatuak direla: balea... eta hobendun bakarra jendeak dira: kutsadura, arrain arraroen ihiztekatzez eta arrantzatzez.



➤ *Marrazo zezen bat, Donostiako akuariumean*